



Hezkuntzan lan egin nahi?

Ikasketak bukatzean lan-mundura bideratzeko gida

Haur Hezkuntzako gradua

Non lan egin dezaket?

- Unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoan.
- Haurreskola Partzuergoan.
- Udal Haur Eskola publikoetan.
- Unibertsitatez kanpoko hezkuntza pribatuan.
- Haur Eskola pribatuetan.

Lehen Hezkuntzako gradua

Non lan egin dezaket?

- Unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoan.
- Unibertsitatez kanpoko hezkuntza pribatuan.

DBH eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza Masterra

Non lan egin dezaket?

- Unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoan.
- Unibertsitatez kanpoko hezkuntza pribatuan.

Esku artean duzun eskuorri hau **STEILAS** sindikatuak egindako laburpen gida da. Jarraian irakurriko duzun informazioak irakasle/hezitzaile lanetan hasteko lehen urratsak nola egin azaltzeko helburua dauka.

Laburpen bat besterik ez da, baina bidean galderak badituzu ez izan zalantzarik eta jar zaitez gurekin harremanetan!

Unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoan

1. Ordezkapenak egiteko zerrendetan sartzea

Kurtsoan zehar sor daitezkeen ordezkapenak betetzeko espezialitate ezberdinen araberrako hautagaien zerrendak erabiltzen dira. **STEILAS**, CCOO eta LAB sindikatuok sinatu genuen 2018ko aurreakordioari esker ordezkapenentarako espezialitate guztien hautagaien zerrendetan izena emateko prozedura irekita dago eta edozein unetan izena eman daiteke. Zerrenda hau urtean behin egiten den birbaremazio prozesuaren bidez berritzen da, eta hautagaien hurrenkera berria sortzen da, titulazioa, espediente akademikoa eta lan esperientziak kontuan hartuz.

Behin zerrenda batean izena emanda, eta dagokion titulazioa izanez gero, birbaremazio prozesuan beste espezialitate batean ere sartzeko aukera dago.

Oposizioetan lanposturik lortu ez arren, probak gainditzen badira, hautagaia automatikoki zerrendan sartzen da eta gainditzeagatik puntuazio gehigarria jasotzen du.

Zerrendan sartzeko betekizun orokorrak

Magisteritzako titulua eta Euskararen C1 edo baliokidea.

Izen-ematea www.hezigunea.euskadi.eus atariaren bidez egiten da, horretarako bertan izena ematea beharrezkoa da.

Zerrenden arteko lehentasunak

Espezialitate bakoitzeko 4 zerrenda bereiz daitezke, eta lanpostuak hautatzeko orduan kontuan hartzen dira:

- 1.** Espezialitateko zerrenda orokorra (birbarematua).
- 2.** Espezialitateko oposizio frogak gainditu dituzten pertsonekin osatutakoa.
- 3.** Zerrendak irekitzearen ondorioz ikasturtean zehar sartu direnak.
- 4.** Hizkuntza Eskakizuna edo formazio pedagogikoa betetzen ez dutenek osatutakoak.

Nola jakin dezaket zerrendan izango dudan puntuazioa?

Zerrenda orokorraren ordena

Espezialitate bakoitzeko zerrenda orokorra puntuen arabera ordenatzen da. Irizpide garrantzitsuenak (gehiago Ordezkoen Araudiko eranskinetan):

		Puntuazioa
Esperientzia irakaskuntza arautuan	Unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan	- 60 egun = puntu 1 - Espetxeetan, 60 egun = 2 puntu
	Pribatuan eta Haurreskolak Partzuergoan	- 60 egun = 0,33 puntu
	Haur-eskola pribatuetan	- 60 egun = 0,11 puntu
Prestakuntza akademikoa	Eskakizunezko titulazioaren espediente akademikoa	- 9tik 10era, puntu 1 - 7tik 8,999ra, 0,75 puntu - 6tik 6,999ra, 0,50 puntu - 5etik 5,999ra, 0,25 puntu
	Bestelako gradu edo lizentziaturak	- Puntu 1
	Diplomaturak	- 0,5 puntu
	Master Titulu Ofiziala (urriaren 29ko 1393/2007 EDk arautua)	- 0,5 puntu
	Doktore-titulua	- Puntu 1
Hautaketa-prozesuak gainditzea	Oposizio fasea 2019tik aurrera gainditu izana	- 6 puntu
Lanbide Heziketan	Arloan izandako lan esperientziaren hilabete bakoitzeko	- 0,25 puntu (gehienez, 15 puntu)
Musikako irakaskuntzak, Arte dramatikoa eta Dantza irakaskuntzak	Arloan izandako esperientzia	- *Begiratu ordezkoen araudiko 1. eranskinaren C, D eta E atalak

Birbaremazioa

- Ordezko gaien **zerrenda eguneratzeko** da eta azaroan egiten da, baina data horrek aldaketak izan ditzake.
- Epe horretan **Hezigunea** bidez hautagaiaren fitxa kontsultatu eta datuak zuzenak diren egiaztatu daiteke, aurreko taulako baremoak barne.
- Aukeratutako **lan-aukerak aldatzeko; lurraldea, jardunaldi mota, espezialitateak gehitu edo kendu, etab.**
- **ADI!** Behin-behineko zerrendak ateratzean **erreklamazioak** egin eta behin betiko zerrendari **gora jotzeko errekurtsioa** ere egin ahal zaio.
- Birbaremazioetan egindako aldaketak hurrengo ikasturtean jartzen dira indarrean.
- Ez ahaztu "Izangaiaren fitxa" deskargatzea eta gordetzea, prozesuak irauten duen bitartean egongo delako bakarrik ikusgai.

Zerrendan izena eman eta gero zer?

Zerrendan izena eman eta gutxi gorabehera hilabeteko epean, titulazioak balioztatu eta lan eskaintzen eskaeretan parte har dezakezu.

Lan eskaintza horiek, ikasturtean zehar suertatzen diren ordezkapen beharrak betetzeko dira eta ORDEZKAGUNEA aplikazioaren bitartez banatzen dira.

Ordezlagunea

Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetako lanpostu hutsak estaltzeko eskaerak telematikoki kudeatzea ahalbidetzen duen plataforma da. **Bi funtzio nagusi** ditu:

1. Oinarrizko datu pertsonalak berrikustea / eguneratzea / biltzea	2. Ikastetxe publikoetako lanpostu hutsak estaltzeko kudeaketa
<p>Harremanetan jartzeko datuak, Hezkuntza Saila hautagaiekin telematikoki komunikatzeko (e-mailez edota telefonoz).</p> <p>Hautagaiaren ohiko helbidea, beharrezkoa denean, sistemak hautagaiaren ohiko helbidetik EAEko edozein ikastetxe publikora distantzia kilometrotan kalkulatu dezaten.</p>	<p>Ikastetxe publikoetako lanpostu hutsak estaltzeko eskaintza eta lanpostu horien ezaugarriak egunero kontsultatzeko aukera ematea.</p> <p>Hautagaiari eskaintzaren barruan estali nahi dituen lanpostu hutsak eskatzeko eta eskaerak lehenesteko aukera ematea.</p> <p>Hezkuntza Sailera lanpostu hutsen eskaera bidaltzea.</p> <p>Sailak egunero egiten dituen esleipenetara sartzea eta jakinarazpena bitarteko hauen bidez jasotzea: e-maila, SMSa edota telefono deia.</p>

Ohar garrantzitsuak:

- 1.** Esleipenean lanpostu bat lortzeko aukera izateko, egunero parte hartu behar da ("lanerako prest" bazaude).
- 2.** Ordezlaguneko ordutegia:
 - a. Lanpostu hutsak estaltzeko eguneroko eskaintza argitaratzeko eta **eskaerak egiteko**: **13:30etik 15:30era**.
 - b. Esleipena ikusteko: **15:45ean**, nahiz eta ordu hori alda daiteke eskainitako plaza-bolumenaren arabera.
 - c. Nire lan egoera aldatzeko: **9:30etik 13:00etara** bakarrik.
- 3.** Ordezlagunean parte hartzea borondatezkoa da. Gogoratu "lanerako prest" egoeran dagoenari, hutsik geratu den lanpostua nahitaez esleitu ahal zaiola.
- 4.** Irakaskuntza ertainetan, 2. afinitateko lanpostuak ere har daitezke.
- 5.** Abuztu amaierako eskaintzak Ordezlagune bidez dira.

Lanpostu bat esleitzen badidate zer?

Esleitu eta hurrengo egunean ikastetxera joan, bertan esku-hartzea egin eta lanean egongo zara ordezkapenak dirauen bitartean. Ordezkapena bukatzean "lanerako prest" egoeran jarri beharko zara berriro aplikazioan, eta prozesuan parte hartu.

Nola lortu ikasturte osoko lanpostuak?

Ikasturte osorako esleipenak (IKHA/COCU) aurreko ikasturtearen amaieran egiten dira data zehatz batzuetan, bertan parte hartzeko ezinbestekoa da une horretan zerrendetan onartua egotea.

Prozesu hori ez da ORDEZKAGUNEA erabiliz egiten, baizik eta HEZIGUNEA deritzona erabiliz egiten da, eta bere araudi propioa dauka.

2. Oposizio-lehiaketa prozesua gainditzea

Hezkuntza Sailak Oposizioak deitzen dituen bitartean, bertan izena eman, tasak ordaindu, probetara aurkeztu eta gaindituz gero, funtzionario lanpostu finkoa lortuko zenuke aurkeztutako espezialitatean.

Haurreskolak Partzuergoan

Haurreskolak Partzuergoa, haur eskola publikoak kudeatzen dituen Eusko Jaurlaritzako enpresa publikoa da, 0-2 bitarteko adin tarteko umeentzat dena. Bertan lan egiteko, Haurreskolak Partzuergoko zerrendetan izena eman behar da, baremazio/birbaremazio eta izen emate epea irekitzen denean. Izen ematea Hezigunea plataforman egin behar da: ikasturtean zehar lortutako meritu berriak gehitzeko, zure aukeren aldaketa egiteko (zonaldeak, jarduna...). Urtero baremazioarako irekiko den epean egin ahalko duzu. Plaza finko bat lortzeko bidea, oposizioak egitea da.

Nola jakin dezaket zerrendan izango dudun puntuazioa?

Haurreskolak Partzuergoko zerrendetan izena emateko beharrezko ikasketa-tituluak:

- Haur-hezkuntzako irakasle-titulua: Gradua edo Diplomatura, Haur-hezkuntzako goi-mailako teknikari titulua edo Hautzaindegietako teknikari espezialista titulua*.
- Euskara titulua: Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko C-1 maila, Hezkuntzako 2. Hizkuntza eskakizuna, EGA edo horien baliokideren bat izatea.

* Zerrendetan izena emateko erabilitako tituluagatik ez da hurrengo taulan agertzen den puntuaziorik gehituko. Titulu horren batz besteko notaren arabera puntuazio bat edo beste jasoko duzu:

9 - 10	1 puntu	7 - 8,999	0,75 puntu	6 - 6,999	0,50 puntu	5 - 5,999	0,25 puntu
--------	---------	-----------	------------	-----------	------------	-----------	------------

Zerrenda puntuen arabera sailkatzen da. Irizpide garrantzitsuenak (gehiago baremazio araudian http://www.haurreskolak.eus/adj_documentos_informacion/708.pdf):

Ikasketa tituluak	Puntuazioa
Irakaslea Haur Hezkuntzan – Diplomatura	1 puntu
Irakaslea Haur Hezkuntzan – Gradua	1 puntu
Haur Hezkuntzako goi mailako teknikaria	1 puntu
Hurtzaindegian espezializatutako teknikaria	1 puntu
Gaikuntza Haur Hezkuntzan	1 puntu
Psikologia – Lizentziatura / Gradua	1 puntu
Pedagogia – Lizentziatura / Gradua	1 puntu
Psiko-pedagogia Lizentziatura	1 puntu
Irakasle Diplomaturetan beste espezialitatearen bat ¹	0,5 puntu espezialitateko
Irakaslea Lehen Hezkuntzan – Gradua	0,5 puntu
Haur Hezkuntza edo eta Lehen Hezkuntzako minorrak eta aipamenak ²	0,5 puntu espezialitateko

Lan esperientzia	Puntuazioa
Haurreskolak Partzuergoan	0,01 eguneko
Baimendutako haur eskoletan edo hurtzaindegietan	0,005 eguneko

Zerrendan izena eman eta gero zer?

Haurreskoletan lan eskaintzak telefonoz kudeatzen dira.

Lanpostu bat esleitu eta hurrengo egunean Haurreskolara joan beharko duzu eta, bertan, esku-hartzea egin eta lanean egongo zara kontratuak dirauen bitartean.

Kontratua amaitzean, ofizioz, lanerako prest egongo zara beste lan eskaintza bat eskuratzeko. Ordezkoen araudian informazio garrantzitsuena topatuko duzu:

<https://steilas.eus/2021/10/25/haurrekolak-partzuergoko-hezitzaile-ordezkoen-araudia-2021/>

1. Atzerriko hizkuntza, Heziketa Berezia, Heziketa fisikoa, Lehen Hezkuntza, Musika Hezkuntza, Entzumena eta Mintzaira.
2. Haur Hezkuntza tailerrak, euskara hezkuntza tresna, atzerriko hizkuntza, heziketa berezia, berrikuntza proiektua, adierazpena eta komunikazioa dramatizazioaren bidez, kulturartekotasuna, hizkuntzen trataera bateratua, irakurzaletasuna eta liburutegia, gorputz hezkuntza, berrikuntza haur hezkuntzako eskolan, musika hezkuntza, hizkuntza aniztasuna eskolan, curriculum eta baliabideak, berrikuntza lehen hezkuntzan.

Udal haur eskolak

Udal bakoitzak bere antolakuntza eta araudia dauka, herri edo hiriren bateko udal haur eskoletan interesa baduzu, kontsultatu bertako udal erakundeetan.

Unibertsitatez kanpoko hezkuntza eta haur eskola pribatuak

Curriculum Vitae bat prestatu eta ikastetxera bidali.

Aurrez aurreko elkarrizketetara deituak bazarete, kontuan hartzeko gomendio batzuk:

- Eskola pribatuak izanik, enpresa pribatuak dira (S.A., S.A.L., S. Coop.), beraz kontratazio eskumenak haien eskura daude. Irizpide erabat subjektiboak erabili ditzakete.
- Kontuan izan eskola pribatu asko erlijiosoak direla eta DECA eskakizuna egon daitekeela.
- Nire bizitza pertsonalari buruzko galderak egitea legezkoa al da? **EZ!** Ez dugu zertan gure bizitzari buruzko galderei egia erantzun behar. (Ea umeak izan nahi ditugun, bikotea dugun, sindikatuan afiliatuta gauden...).
- Zuzendaritzak erabat gerentzialak dira eta kontratazioak urtez urte luzatzen dituzte kasu askotan.



STEILAS zer da?

- Hezkuntzako langileen sindikatua gara, irakasle eta ez irakasleen topalekua, Haur Eskoletatik unibertsitateraino.
- Euskal Herriko sindikatua, Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan dihardugu 1977tik.
- Ezkerreko sindikatua, gobernu eta patronalen erasoei erantzuteko eredu sindikal borrokalaria eta dinamika parte-hartzailea bultzatzen dituena.
- Jarduera esparru laboraletik haratago eramaten dugu. Jendarte mugimenduekin elkarlanean aritzen gara eraldaketa soziala bultzatzeko.



Zer aldarrikatzen dugu?

Langileen eskubideak.

Gure lehentasuna langileen eskubideak dira: lan baldintza egokiak, enplegu egonkorra eta kalitatezkoa, lan osasuna, berdintasuna, lan banaketa, baita ordezko eta gazteen eskubideak ere, azken horiek baitira ahulenak.

Gure hezkuntza eredu.

Pertsonen garapen integrala eta kritikoa bermatzen dituen hezkuntza sistema da, gizarte kohesioa, euskalduntzea, feminismoa, kalitatea, bakea eta elkarbizitzarako hezkuntza bermatzen dituena. Euskal Eskola Publikoa ardatz duen eredu bat, inklusiboa, laikoa, parte-hartzailea eta demokratikoki kudeatzen dena hain zuzen ere.

Geure nortasuna herri gisa.

Gure etorkizuna erabakitzeko eskubidea aldarrikatzen dugu. Pertsona, ideia eta proiektu guztiak kontuan hartuko dituen etorkizuna, non normalizazioaren bidean elkarrizketa eta giza eskubideak izango diren oinarri.

Gizarte eredu berria.

Gure xedea zerbitzu publiko indartsuak, aberastasunaren banaketa, garapen jasangarria, nazioarteko elkartasuna, kulturartekotasuna, generoaren arteko berdintasuna eta eskubide sozialak bultzatzen dituen gizartea da. Aldi berean, borrokan jarraituz, militarismoaren, xenofobiaren, LGTBIO-fobiaren, globalizazio neoliberalaren, pribatizazioen, inperialismoaren eta gizarte eskubideen murrizketen kontra egiten dugu.

Feminismoa.

Feminismoa dugu eraldaketarako ardatz. Emakume eta gizonetzkoen arteko berdintasun formal zein erreala ezinbestekoak dira gure gizarte eredu proposamenean. Hezkidetzaz jorratzen dugu buru-belarri.



Zer eskaintzen dizugu?

Sindikatuaren bizitzan eta erabakietan parte hartzea.

Zure iritzia zuzenean eman dezakezu, batzarretara bertaratuz edo guri beste modu batez helaraziz.

Aholkularitza eta arreta pertsonalizatua.

Eguneroko arazoetan lagunduko zaitugu: kontratuak, nominak, erretiroak, gizarte-segurantza kontuak, eskubide laboralak, espedienteak, lan osasuna, arautegiak, deialdi publikoak...

Argibide zerbitzua.

Lan munduari, hezkuntzari eta esparru soziopolitikoari buruzko argibideak eskaintzen ditugu. Gure argitalpenak webgunean edo posta elektronikoz eskura izango dituzu.

Zerbitzu juridikoak.

Doako aholkularitza izango duzu, era zuzenean zein telefonoz, baita erreklamazioak edo helegiteak bideratzeko laguntza ere. Zure interesak ordezkatuko ditugu behar denean eta behar denaren aurrean.

Hezkuntzako material osagarriak

izango dituzu eskuragarri: EPE prestatzeko materialak, hezkuntzako monografikoak, unitate didaktiko espezifikoak (Hezkidetzaz, LGTBIO, kooperazioa...) eta abar.

Eilastasuna.

Nazioarteko elkartasunerako funtsa sustatzen dugu hezkuntzari lotutako proiektuak bultzatzeko.

Prestakuntza.

Oinarritzko trebakuntza sindikala ematen diegu gure delegatu eta ordezkariei. Afiliatu guztiei prestakuntza saioak eskaintzen zaizkie.



www.steilas.eu

Araba

Manuel Iradier, 40
01005 Gasteiz
☎ 945 141 104
araba@steilas.es

UPV/EHU Arabako Campusa
Ikasgelategia, 204. Bulegoa
01006 Gasteiz
☎ 945 013 397
steilas-araba@ehu.es

Bizkaia

Jose Maria Eskuza 1, 1 esk.
48013 Bilbo
☎ 944 100 298
bizkaia@steilas.es

UPV/EHU Bizkaiko Campusa
Liburutegiko eraikina 1. solairua
48940 Leioa (Bizkaia)
☎ 946 012 434 ☎ 946 012 435
steilas-bizkaia@ehu.es

Gipuzkoa

Basotxiki 30-34 atz.
20015 Donostia
☎ 943 466 000
gipuzkoa@steilas.es

UPV/EHU Gipuzkoako Campusa
Ignacio M^a Barriola eraikina
Elhuyar Plaza 1 - 20018 Donostia
☎ 943 018 436 ☎ 943 018 281
steilas-gipuzkoa@ehu.es

Nafarroa

Joaquin Beunza, 4-6 behea
31014 Iruñea
☎ 948 212 355
nafarroa@steilas.es

